

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Modesta Gallastegi Arregi*

*Arrasate,  
Gipuzkoa  
(1917-2008)*

Aurkibidea

**Biografia**



# Zintak

## ARR-005

- **Proiektua:** Arrasateko haur kantak eta jolasak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2005-01-04
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

## Pasarteak

### 1. Merzedarietako eskola; sor Maria Jacinta eta sor Aurelia

- **Erref:** ARR-005/002
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

#### Laburpena:

Arrasate asko aldatu da. Eskolara, mertzedarietara joandakoa. Baserrian lan asko egin behar izaten zen eta eskolara joateko denbora gutxi izaten zuten. Oporrak. Irakasleak: Sor Eulogia ume-umetan eta gero Sor María Jacinta Uribesalgo eta Sor Aurelia.

### 2. Umetako jolasak; jolaslekuak

- **Erref:** ARR-005/003
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

#### Laburpena:

Lagunekin jolasean non ibiltzen ziren. Errekak banatzen zituen lagun-taldeak. Beraiek Iramendin jolasten zuten. Igande arratsaldetan bakarrik jolasten zuten: buleka (harrapaketa); tokatorreka, tapetara... Ez zuten animaliekin jolasten eta askotan neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren.

### 3. "Loa loa txuntxulun berde..." kanta

- **Erref:** ARR-005/005
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:05:25. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena:**

<p>"Loa loa txuntxulun berde..." kanta.</p>

**Transkripzioa**

- Ta umiek negar eitten auenien eta, ez zotsen kantetan ezebez?
- Bai.
- Zer?
- Ai ama! Oin ez dakit... "Loa, loa txuntxulun berde" be kantetan gutsen.
- Eta zelan zan, ba?
- "Loa, loa txuntxulun berde, loa, loa, masusta".
- Ta ya está?
- Ez dakitt, ya ahaztute dauket. "...txuntxulun berde,. Loa, loa, masusta. Lo [eirazu], haurra...", ba, hortiik... Antzera.

**4. "Atzamar txikitxo hori..." kanta**

- **Erref:** ARR-005/006
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:06:15. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

<p>"Atzamar txikitxo hori, punta behatz hori, danen artian txiki&ntilde;a dek hori..." kanta.</p>

**Transkripzioa**

- Gero, eskuekin-eta umiei eitten jakon jolasik? Holan, eskutxuekin-eta...?
- Bai. Eskutxuekin:

Atzamar txikitxo hori, punta behatz hori,  
danen artien txikiña dek hori.

Bigarrentxu hori, punta behatz hori,  
beste guztien aldien nagie dek hori.

Hirugarrentxu hori, punta behatz hori,  
beste guztien aldien luzea dek hori.

Laugarrentxu hori, punta behatz hori,  
beste guztien artien bizkorra dek hori.

Bosgarrentxu hori, punta behatz hori,  
beste guztien artien lodia dek hori.

**5. "Arre arre mandako..." kanta**

- **Erref:** ARR-005/007
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena:**

<p>"Arre arre mandako..." kanta.</p>

**Transkripzioa**

- Ta altzuen hartu ezkerro umetxon bat?
- Ba, kantetan gotsen. Oin me he quedao en blanco. Etxoiñein apur bat.
- "Arre, arre mandako"?
- "Arre, arre mandako" be bai. "... bixar Tolosarako, etzi Panplonarako. Handik zer ekarriko? Zapata ta gerriko. Zeiñendako?" Ba, izena ze esaten gaixonan.

**6. "Hanka-koskoka" jolasa**

- **Erref:** ARR-005/008
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Hanka-koskoka ere jolasten zuten. Lurrean laukiak margotzen zituzten eta hankarekin harri leun bat laukitik laukira eraman behar izaten zen.

**7. Eskolako txangoak; eskolan erdaraz**

- **Erref:** ARR-005/009
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:09:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

<p>Eskolatik behin Bilbora joan ziren. Orduko kontuak. Mojekin abesten zituzten kanta guztiak erdaraz izaten ziren. Eskolan ere dena erdaraz ikasten zuten.</p>

**8. Baserriko lanak eta ohiturak; angelusa, aramaitakoa**

- **Erref:** ARR-005/010
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:09:25. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

**Laburpena:**

<p>Baserrian egiten zituzten lanak umetan: arta-zuriketa; gari-ebatea; gari-jotzea; baba-batzea; arbi orriak batzea... Eguerdiko 12:00etan angelusa errezatzen zen; iluntzean aramaitako kanpaia entzuten zenean ere errezatu egin beharra egoten zen. Elizakoak eramaten zirenean, kanpaiak jotzen zituzten elizan. Lan egiteari utzi behar izaten zitzaion eta errezatu egiten zuten.</p>

**9. Kardu-lorearekin "kalbo ala uledun" jolasa**

- **Erref:** ARR-005/011
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Umetako jolasak eta natura. Kardu-lorearekin ere jolasten zuten. Putz egin eta "kalbo edo uledun" esaten zuten.

**Transkripzioa**

- Gero, lorakin-eta, margaritakin-eta, ez zauen jolasten?
- Baitte. Margaritakin ez. Kardu... Karduen lorie juan ta gero, ha zurixe eukitten dauenaz "uledun ala kalbo", putz eindde.
- Ta ze zan hori?
- Ba, putz ein ta danak kentzen botsenan, "kalbo". Ta, bestela, ba "uledun".
- Ta holako zomorrotxuekin ta?
- Ez, zomorrotxuekin-ta ez.
- Ez?
- Ez. Ipurtargixek.

**10. Ipurtargiekin jolasten zuten**

- **Erref:** ARR-005/012
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:11:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Natura » Fauna

**Laburpena:**

Zomorroekin ez zuten jolasten, baina ipurtargiekin bai.

**11. Errekako jolasak**

- **Erref:** ARR-005/013
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Errekan igerian. Jolasak. Zuhaitz batetik uretara salto egiten zuten.

**12. Esaera zaharrak eta ipuinak ahoz aho**

- **Erref:** ARR-005/014
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:12:10. **Bukatu:** 00:13:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa

**Laburpena:**

Esaera zaharrak, egun, ia galduta daude. Garai batean, etxeetan ipuin kontakizun ugari pasatzen ziren belaunaldi batetik bestera.

**13. Urteko eliz-ospakizunak**

- **Erref:** ARR-005/016
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena:**

<p>Ospakizunak. Urte-egunak. Gabonak nola ospatzen zituzten. Olentzero. Garizuman fraideak etortzen ziren eta familia guztia mezara joatea ohitura izaten zen. Ama Birjina Kontzesioko bederatziurrenean ere guztiak joaten ziren mezara.</p>

**14. Auzoko jaiak; San Josepeko eliza**

- **Erref:** ARR-005/017
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak

**Laburpena:**

<p>Auzoko jaiak: Patrizi&ntilde;o Eguna (Pazkotik hirugarren igandea). San Josepen eliza ederra zegoen (gaur egun jausita dago) bi kapera handirekin: alde batean Ama Birjina Zuriarena eta beste aldean San Joserena. Ama Birjina Zuriaren Egunean lehenengo meza "txikia" (arrunta) egoten zen eta gero hiru abadekin beste bat. Katilukada bat txokolate ogi zatiaz ematen zitzairen mezara gerturatzen ziren guztiei. Beraien etxean, Intxaustin, aintzinatik

(birraitonaren denboratik gutxienez) gordetzen zuten San Josepeko elizako giltza. San Josepeko elizan, eskuan gurutzea alderantziz zuen San Andres txiki bat zegoen, eta Aretxabaletatik, Eskoriatzatik, Bergararik... jende asko joaten zen santuarengana euren umeek hitz egiten ikas zezaten eskatzera. Horretarako, erroskillak jartzen ziren santuaren gurutzean.</p>

## 15. Inuxente eguneko esaera

- **Erref:** ARR-005/018
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

### Laburpena:

Inuxente eguna. "Inuxente, babalora..."

#### Transkripzioa

- Ta, gero, Iñuxente egunian ta? [...]
- Bai, Inuxentiek-eta bai.
- Zelan?
- Ointxe letxe, aldrebeskerixan bat erain ta... Ta gero: "Iñuzente, babalora, txakurren buztana jira gora" esan ta aurrera!

## 16. San Nikolas; "bolue"

- **Erref:** ARR-005/019
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

### Laburpena:

<p>San Nikolas eguna beti ospatzen zuten. San Nikolas abestu ondoren "bolue" (boloa) egiten zen. Don Toribio Agirreren etxeko balkoian hiru neska egoten ziren, kofia eta guzti, boloa botatzen: gaztainak, sagarrak eta erdikoak txakur handiak botatzen zituzten.</p>

## 17. Santa Ageda bezperako lagun-taldeak

- **Erref:** ARR-005/020
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:17:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

### Laburpena:

Santa Ageda eguna beti ospatzen zen. Hamasei urtetik gorako lagun-talde ugari irteten ziren. Ezezagunei arrautza bat edo ematen zitzaien.

## 18. San Juanetako ohiturak eta kantanak

- **Erref:** ARR-005/021
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:17:55. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantanak

### Laburpena:

<p>Herriko jai nagusia, San Juan. Gonbidapenak. Etxe ondoan San Juan sua egiten zuten beti. San Juan kanta. Umea zenean, antzinako kanta abesten zuten "Igaz ere San Juan, San Juan zan eta". Gerora, kanta berria "Ez dago inon gizonik".</p>

### Transkripzioa

Bestie:

Igaz ere San Juan San Juan zan eta  
aurten ere San Juan Bautista.  
Jesukristoren lehengusua zan  
San Juan, San Juan Bautista.

Enda, ba:

Ibai guztiak agortu dira  
datorren urtian mutil-koskorak  
nun egingo dute igari.

Ta, gero, ba... Ez. Hori oin barrixetakua...

## 19. Udaberri eta udazkeneko konjuruak

- **Erref:** ARR-005/022
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

### Laburpena:

Konjuruak egiten ziren udaberri eta udazkenean. Kanpaiak ere jotzen zituzten. Hodea etorri ez zedin; zomorrotatik babesteko, eta abarretarako. Ez zuten bedeinkazioa ulertzen; dena latinez izaten zen.

## 20. Bedeinkazioak; iluntzean arrosarioa

- **Erref:** ARR-005/023
- **Iraupena:** 0:00:10. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena:**

<p>Bedeinkazioak. Bazkaldu aurretik, beti erreztatzen zuten. Iluntzean arrosarioa.</p>

**21. Umea jaiotakoan egin beharreko ohiturak**

- **Erref:** ARR-005/024
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:22:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

**Laburpena:**

<p>Umeak jaio eta beranduenez hurrengo egunean bataiatzen ziren aita-ama pontekoekin. Inudeak eramaten zuen umea. Bataio ostean, aita-ama pontekoek txokolatea ematen zien etxeko umeei. Ospakizunetan ez zen kanpikorik egoten. Ama indartutakoan, "elizara sartu" behar izaten zen bere umearekin. Ohitura zaharrak. Lehen jaunartzea zazpi urterekin izaten zen.</p>

**22. Umetako jolasak; hanka-koskoka**

- **Erref:** ARR-005/025
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:23:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Umetako jolasak. Denbora gutxi izaten zuten jolas egiteko. Hanka-koskoka egiten zutelako etxean amak haserre egiten zien, abarketak apurtzen zituztelako. Errifatzeke esaerak egoten ziren, baina ez ditu gogoratzen.

**23. Txatxilipurdika, txirikilarekin; "ahigozue" meriendatzeko**

- **Erref:** ARR-005/026
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:23:10. **Bukatu:** 00:23:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena:**

Txatxilipurdika lurrean gutxi egiten zuten. Txirikiletan umeak bakarrik ez,

neska-mutil nagusiek ere jolasten zuten. Arratsaldean merienda, "ahigozue" (esnea, azukrea, irina eta kanelarekin egindako ahi moduko bat).

#### Transkripzioa

- Lurrien-eta, txatxilipurdika-ta, eitten zauien?
- Gutxi, gutxi.
- Diaboluekin eta txirikillan-eta?
- Txirikillan beti. Baiña txirikillan ez umiek, e! Neska-mutillek, nobixa-nobixuek eta eitten jonen orduan txirikilletan. Ta, gero, ahi-gozue baserriren baten. Ahi-gozue ez dakin zer dan... Papilla. Esniekin ta urunaz, kanela zotz bat bota, ta azukerra, ta ahi-gozue. Ha merixendie izeten zonan. Hori haundixek, e!

### 24. Umetako jolasak: txintxauna, kanikak edo puxtarriak, tronpa edo ziba

- **Erref:** ARR-005/028
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:24:15. **Bukatu:** 00:25:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

#### Laburpena:

Txintxaunean. Mutilek kanikekin (puxtarriekin) jolasten zuten. Puxtarriak etxean buztinez egiten ziren eta kristalezkoak oso preziatuak ziren. Puxtarriekin potxoka jolasten zuten. Geroago etorri zen ziba.

#### Transkripzioa

- Gero, txintxaunien edo?
- Zera... Bat kantetan zonan... Erderaz zonan ta ez jatan akordetan. "Chiquitita y bonita" be bai.
- Ta mutikuek tronpia-ta erabiltten auen?
- Bai, tronpie bai, baiña geruao, e?
- Ta, bestela, kanikak?
- Kanikak beti. Baiña buztiñezkuek, e! Etxien eindda. Ta loradun kanikak Muñoz, Donostiako primuek, aitten primuek, bialketan bazittunan, haik relikixia izeten zonan, horrek, kristalezko kanikak. Bestela, buztiñezko kanikak.
- Eta nun sartu bihar izeten auen gero kanikiek?
- Ba, orduan be potxuen. Tortoliske be bai.

### 25. Tortolasetan nola jolasten zuten

- **Erref:** ARR-005/029
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:25:05. **Bukatu:** 00:26:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

#### Laburpena:

<p>"Tortoliske", tortolasetan nola egiten zuten. Harri loredunak.</p>

### Transkripzioa

- Tortoliske be bai. Tortolisek dittun billotsen ha belauneko junkurie. Ta haregaz gora botaka be bai eta puntuen be bai. Ta harri loradunekin be bai.
- Zerekin?
- Harri loradunek. Hik zer dien be ez dakin harri loradunek! Fratelen edo tazaren baten zatixek, badakin adornua eukitten dabena? Ba, haik, hola, horma kontra bota ta hormien hurrengo bota dabenak, hurren daukenak, gora bota eta hartzen jittun loradunek. Eta, ba, hik danien galdu badon, hire harri loradunek neuretako.
- Eta gero, gora botaterakuen, ze esaten zauien?
- Ezebez, esan ezebez. Tortolisekin bai. Tortolisekin gora botaka, lau aldetara. Kanikie edo pelotie edo... Pelotie be etxien harixekin einddekue edo. Eta, orduen, botatzen zonan, esate baterako, cara-cruz eta alde bixetara. Ta ha bota ta ha hartu. Eta bat ez badauken heuk hartu bihar donan moduan, ha pelotie bota ta beste eskuaz ha pelotia hartu orduko buelta emon. Ta, ba, ez zonan beste jokorik egoten!

## 26. "Atzamar txikitxo hori" kanta

- **Erref:** ARR-005/032
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:27:35. **Bukatu:** 00:28:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

### Laburpena:

<p>"Atzamar txikitxo hori, punta behatz hori, danen artian txiki&ntilde;a dek hori" kanta.</p>

### Transkripzioa

- Ha lehen eskuekin ein dozuna eingo dozu barriro?
- Zein?
- Atzamartxuena.
- Bai.

Atzamartxu hori, punta behatz hori,  
danen aldian txikiña dek hori.

Bigarrentxu hori, punta behatz hori,  
beste guztien aldien alperra dek hori.

Hirugarrentxu hori, punta behatz hori,  
beste guztien artien luzia dek hori.

Laugarrentxu hori, punta behatz hori,  
beste guztien artien bizkorra dek hori.

Bosgarrentxu hori, punta behatz hori,  
beste guztien artien lodia dek hori.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - [ahotsak@ahotsak.com](mailto:ahotsak@ahotsak.com)